



**GIZARTEKO SOLIDARITATEA FINANTZATZEKO  
ZERGA-POLITIKARAKO NEURRIAK**

ELA, 2011ko apirilaren 18a

## 0- SARRERA

Gizarte ereduari dagokionez, Hego Euskal Herriaren eta Europako Batasunaren arteko desberdintasun nagusiak gizarte-babes maila eta presio fiskala dira, biak ere berton askoz apalagoak. Bi kontuon arteko harrremana ezin estuagoa da.

Hain zuzen, EAEn:

- Gizarte-babesera bideratzen diren baliabide ekonomikoak BPGaren %19 dira, eta Europako Batasunean (EB), berriz, batez beste %27. Honek urtean 5.200 milioi euroko hutsunea eragiten du.
- Presio fiskala BPGaren %31ekoa da, eta EBn batez beste %41ekoa. Aldea urtean 6.400 milioi eurokoa da.

ELAk salatu izan du euskal erakundeen politika fiskala. EAEn foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak hainbat erreforma eginda errenta altuei eta kapitalari zergak jaitsi dizkiete, eta laneko ez diren errententzat progresibitatea ezabatu egin dute. Honi gehitu egin beharko genioke soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskalarekiko utzikeria; ondorioz, euskal ogasunak urtez urte milaka milioi euro galtzen dute, gizarte-gastura bideratu beharko liratekeen milioiak.

Politika fiskal honek desberdintasuna dakar, aberastasuna biltzea eta metatzea, eta finantza-espekulazioa errazten du. Hots, politika fiskalak ere eragin zuzena izan du egungo krisiaren sorreran.

Politika hori salatzearekin batera, ELAk neurri konkretuak eskatu izan ditu zerga-sistema justuago eta solidarioagoa izan dadin. Agiri honetan neurriotako batzuk gogoratuko ditugu, eta ahal den kasuetan izango luketen eragin ekonomikoa zehatztuko dugu.

## I- ZENBAIT NEURRI ETA BALIOESPEN EKONOMIKOA

### A) NEURRI KONKRETUAK

Politika fiskala aldatzea posible eta beharrezko da. ELAk sarri aldarrikatu du iruzur fiskalari jazarri egin behar zaiola eta azken urteotan errenta altuetan, enpresa- eta kapital-errentetan izan diren zerga jaitsierak itzularazi. Honi dagoinez, beharrezko da:

#### **Iruzur fiskalari jazartzea**

Datu ofizialek ezkutatu egiten dute iruzurraren jazarpena medio zenbat diru bildu den; bada, datu horien arabera, EAEn:

- PFEZean laneko errentak ditugunok batez beste urteko 21.274 euroko diru-sarrerak aitortzen ditugu, eta jarduera enpresarial edo profesionalak egiten dituztenek, berriz, 13.141 eurokoak; honek agerian uzten du dagoen iruzurra.

- Halaber, 2007. urteko Sozietateen Zergako 10 aitorpenetik ia 7tan enpresek adierazi zuten galerak zituztela, etekinik ez zutela lortu edota irabazia 6.000 euroz pekoa izan zela (eta urte hartan, datuak ditugun azkenekoan, ez zegoen krisi ekonomikorik).

Soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskal izugarriari jazartzeko honakoa behar da:

- Soldatapeko ez diren errenta guztiak (PFEZ, Sozietateen Zerga eta BE-Zean) iruzurra iraungitzeko epea baino lehenago ikuskatu (hots, orain urtean ikuskatzen den %1 eskas horretatik %20ra gehitu).
- Giza-bitartekoak gehitu, ikusatzeko beharrizana asko handituko baita.

## PFEZ

PFEZari dagokionez, ELAk hau eskatzen du:

- Zergaren eskalan galduztako progresibitatea berreskuratzea. Hau aldatu egin beharko litzateke: errenta apalenei aplikatu beharreko tipoa jaitsi (hau igo egin dute) eta errenta altuenei igo. Hain zuzen, egungo %45eko tasa marjinala duela zenbait urte zegoen %56era itzuli beharko litzateke.
- Tratu bera ematea errenta mota guztiei, hots, kapital-errentenzako pribilegioa bertan behera uztea, tasa finko bat ordaintzen baitute, tarifa orokorreko baino apalagoa. Diru-sarrera guztiekin tratu bera izan behar dute. Zerga-oinarri bakarra ezarri behar da, zerga-tasa bereiziak alde batera utzita.

## Sozietateen Zerga

Sozietateen Zergari dagokionez, ELAk honakoa eskatzen du:

- Sozietateen Zergan tasa nominal bakarra ezartzea, %35.
- Zerga-kenkariak zeharo murriztea, ezartzen den benetako tasa nominalaren erdira jaisten baitute.

## Ondarearen gaineko Zerga

- Ondarearen gaineko Zerga berrezarri egin behar da, eta foru-ogasunek ezabatu zutenean baino zorrotzagoa izan behar du.

## Parte hartze sozialeko bideak

- Foru-ogasunek eta Eusko Jaurlaritzak gaur arte zerga-politika erabakitzekoan ukatu egin dute parte hartze sindikal eta sozialaren aukera. Egoera hau zuzendu beharra dago; parte hartzean oinarritutako prozesu bat egin behar da, eta hor sindikatuek ere zer esana izango dute. Politika fiskala gizarteari kontsultatu egin behar zaio. ELAk EGABen zuen parte hartza eteteko erabakia besteak beste erakunde honi gai fiskalei buruzko kontsultarik egiten ez zitzaiolako hartu zuen.

## **B) NEURRI BATZUREN BALIOESPIN EKONOMIKOA**

EAEko ogasunen informazio eta gardentasun gabezia eragozpen handia da neurri on balio ekonomikoa ezagutzeko. Halere, balioespen bat eginda zenbait kasutan asko hurbil gaitezke Foru-Aldundiek urtean bilduko luketen diru kopurura. Datuak eskandaluzkoak dira, eta agerian uzten dute zenbateko tartea dagoen bestelako fiskalitate bat ezartzeko, herritarren beharrizanen mesedetan egongo litzatekeen fiskalitatea.

ELAKo Azterketa Bulegoak balioetsi ahal izan duenez,

- enpresa-jarduera eta jarduera profesionaletan dihardutenek PFEZean laneko errentetan aitortzen diren batez-besteko diru-sarrerak aitortuz gero, PFEZean urteko 282 milioi gehiago bilduko litzateke, eta BEZarekin 250 milioi gehiago, PFEZeko iruzurrak BEZean ere iruzurra egotea baitakar.
- PFEZeko tasa marjinal maximoa %45etik %56ra igoko balitz (tarifan beste aldaketarik gabe) urtean 291 milioi euro gehiago bilduko litzateke. Honek esan nahi du diru-sarrera handienak aitortzen dituztenek batez beste orain baino ia 10.000 euro gehiago ordainduko luketela.
- EAEko ogasunek kendu zuten Ondarearen gaineko Zerga berriz ezarrita urtean 180 milioi gehiago bilduko litzateke.
- Sozietateen gaineko Zergaren tasa nominala %35ean ezarriz gero, 900 milioi euro gehiago bilduko litzateke urtean.

Beraz, balioetsi ahal izan ditugun neurriak aplikatzeak (beharrezko diren horien artean bakar batzuk izanagatik) urtean 1.903 milioi gehiago ekarriko luke zergabiltetan.

## **II- ONDORIOAK**

- Eredu fiskala eztabaidea politikotik desagertu egin da. Honen arrazoia, botere instituzionala osatzen duten alderdi politikoek politika horiei buruz daukaten adostasuna. ELAk benetako eztabaidea egotea eskatzen du (politikoa, soziala eta parte hartzean oinarritutakoa), non alternatiba desberdinak aintzat hartuko diren.
- ELAk ez du onartzen aukera bakarra dagoenik, hots, egungo politika fiskala aplikatu eta defizit publikoa gehitzeko aukera baztertzea. Bide honi jarraituta, batetik, uko egiten zaio egungo gabezia sozial handiak osatzeari eta, bestetik, onartu egiten da etorkizunean gizarte-estaldura eta prestazioak berriro murriztuko direla.
- Politika fiskala goitik behera aldatu behar da, aberastasuna era justuago eta solidarioagoan banatzeko tresna izan dadin, eta zergekin gizarteko solidaritatea finantza dadin. Aberastasuna badago; kontua da orain arte baino askoz hobeto banatzea.



**MEDIDAS DE POLÍTICA FISCAL  
PARA FINANCIAR LA SOLIDARIDAD SOCIAL**

ELA, 18 de abril de 2011



## 0- INTRODUCCIÓN

En términos de modelo de sociedad las dos diferencias estructurales entre la situación de Hego Euskal Herria y la de la Unión Europea son que aquí tenemos un nivel mucho más bajo de protección social y de presión fiscal. Estas dos cuestiones están íntimamente relacionadas.

En concreto, en la CAPV:

- Los recursos económicos que se destinan a protección social suponen el 19% del PIB, frente al 27% de media de la Unión Europea (UE). Esta diferencia supone 5.200 millones de euros anuales.
- La presión fiscal es del 31% del PIB, frente al 41% de media de la UE. Esta diferencia supone 6.400 millones anuales.

ELA ha venido denunciando la política fiscal llevada a cabo por las instituciones vascas. En la CAPV las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco han consensuado diversas reformas que han reducido los impuestos a las rentas altas y al capital y han eliminado la progresividad fiscal para las rentas que no son del trabajo. A ello habría que añadir la permisividad con el enorme fraude fiscal que existe en las rentas no salariales. La consecuencia es que las haciendas vascas están perdiendo cada año miles de millones de euros que deberían destinarse al gasto social.

Esta política fiscal genera desigualdad, concentración y acumulación de la riqueza y facilita la especulación financiera. Es decir, la política fiscal ha contribuido de manera directa a generar la actual crisis.

Junto a la denuncia de esta política, ELA ha venido demandando medidas concretas para que el sistema fiscal sea más justo y solidario. En este documento vamos a recordar algunas de estas medidas, señalando su repercusión económica en los casos en que nos resulta posible la concreción.

## I- ALGUNAS MEDIDAS CONCRETAS Y CUANTIFICACIÓN ECONÓMICA

### A) MEDIDAS CONCRETAS

Cambiar la política fiscal es posible y es necesario. ELA ha venido planteando reiteradamente la necesidad de luchar contra el fraude fiscal y volver atrás las rebajas de impuestos aprobadas en los últimos años para las rentas altas, empresariales y del capital. En este sentido, es necesario:

#### **Luchar contra el fraude fiscal**

Los datos oficiales (que ocultan cuánto se ha recaudado realmente a través de la lucha contra el fraude) dicen que en la CAPV:



- En el IRPF quienes tenemos rentas de trabajo declaramos de media unos ingresos anuales de 21.274 euros, frente a los 13.141 que declaran quienes realizan actividades empresariales o profesionales, lo que evidencia el fraude existente.
- En el mismo sentido, casi 7 de cada 10 declaraciones en el Impuesto sobre Sociedades de 2007 (año en el que no había crisis económica y que es el último dato disponible) son de empresas que dicen estar en pérdidas, con resultado 0 o con beneficios inferiores a 6.000 euros al año.

La lucha contra el enorme fraude fiscal existente en las rentas no salariales requiere:

- Inspeccionar todas las rentas no salariales (en IRPF, Impuesto sobre Sociedades e IVA) antes de que prescriba el fraude (es decir, hay que pasar de inspeccionar anualmente menos del 1% de este colectivo al 20%).
- Incremento notable de medios humanos, en consonancia con el aumento necesario de las inspecciones.

## **IRPF**

ELA demanda en el IRPF:

- Recuperar la progresividad perdida en la escala del impuesto. Ésta debería modificarse, reduciendo el tipo aplicable a las rentas más bajas (que se ha subido) y aumentando los tipos a las rentas más altas. En concreto, el actual tipo marginal del 45% debería volver al 56% existente hace unos años.
- Dar igual tratamiento a todas las rentas, eliminando el trato privilegiado de las rentas del capital, que tributan a un tipo fijo, inferior al mínimo de la tarifa general. Todos los ingresos deben tener el mismo tratamiento. La base imponible debe ser única, eliminando los tipos impositivos diferenciados.

## **Impuesto sobre Sociedades**

ELA plantea en el Impuesto sobre Sociedades:

- Establecer un único tipo nominal del Impuesto sobre Sociedades, fijado en el 35%.
- Reducción drástica de las deducciones fiscales, que hacen que actualmente el tipo efectivo sea apenas la mitad del nominal.

## **Impuesto sobre el Patrimonio**

- El Impuesto sobre el Patrimonio debe ser restaurado, con una formulación más ambiciosa que la existente cuando fue eliminado por las haciendas forales.

## **Mecanismos de participación social**

- Las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco han negado hasta ahora la participación sindical y social a la hora de decidir la fiscalidad. Esta situación debe corregirse, y debe realizarse un proceso participativo, con presencia sindical. La política fiscal debe ser consultada a la sociedad. El que no se consultase al CES fue una de las razones por las que ELA suspendió su participación en dicho organismo.

## **B) CUANTIFICACIÓN ECONÓMICA DE ALGUNAS DE ESTAS MEDIDAS**

La falta de información y transparencia de las haciendas de la CAPV dificulta enormemente la cuantificación económica de estas medidas. Sin embargo, en algunos casos se puede estimar, de manera bastante aproximada, cuánto dinero ingresarían al año las Diputaciones Forales. Los datos son escandalosos, y muestran el enorme margen que existe para aplicar una fiscalidad diferente, al servicio de las necesidades de la ciudadanía.

El Gabinete de Estudios de ELA ha podido cuantificar que:

- Si quienes realizan actividades empresariales y profesionales declarasen en el IRPF unos ingresos medios iguales a quienes tienen rentas de trabajo, en el IRPF se recaudarían al año 282 millones de euros más. La recaudación por IVA crecería otros 250 millones de euros, ya que el fraude en el IRPF supone también fraude en el IVA.
- Si el tipo marginal máximo del IRPF pasase del 45 al 56% (sin cambios añadidos en la tarifa) se recaudarían al año 291 millones de euros más. Esto supone que las personas que más ingresos declaran pagarían de media casi 10.000 euros más que ahora.
- Restaurar el Impuesto sobre el Patrimonio que eliminaron las haciendas de la CAPV supondría recaudar al año 180 millones de euros más.
- Establecer en el Impuesto sobre Sociedades el tipo nominal en el 35% supondría recaudar al año 900 millones de euros más.

Es decir, la aplicación de las medidas que hemos podido cuantificar (que son solo una parte de las necesarias) supondría recaudar al año 1.903 millones de euros más de los que se recaudan.

## **II- CONCLUSIONES**

- El modelo fiscal ha desaparecido del debate político. Esto se debe a que existe un acuerdo entre los partidos que conforman el poder institucional en relación a estas políticas. ELA demanda que se dé un debate real (político, social y participativo) en el que tengan cabida las distintas alternativas existentes.
- ELA no acepta que la única alternativa posible sea aplicar la actual política fiscal y renunciar a aumentar el déficit público. Este camino supone, por una parte, renunciar a cubrir los grandes déficits sociales

existentes en la actualidad, y, por otra, aceptar que en el futuro se van a dar nuevos recortes de las coberturas y prestaciones sociales.

- Es necesario cambiar sustancialmente la política fiscal, para que sea un instrumento al servicio de una distribución de la riqueza más justa y solidaria, para que los impuestos permitan financiar la solidaridad social. Riqueza hay, lo que hace falta es que se distribuya mucho mejor que ahora.